



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
2016/05/09

Laespadak ziurtatu dauenez, Ondarroako "inor" ez da egon "gizarte arloko babes barik"

EH Bildu taldeak Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasunerako foru diputatu andrearen agerraldia eskatu dau, Kartera Dekretu barria kontuan izanda, urtea amaitu aurretik osatuta egon behar dan gizarte arloko larrialdien aurreko koordinazio organua ezartearen gaineko azalpenak emon daizan. Oraindino zerbitzu hori martxan ez dagoan arren, Aldundiko arduradunak esan dau horrek "ez dauela ezelango bakotasunik" eragin Ondarroan sortutako larrialdi egoeraren aurrean, koalizio abertzaleak bestelakorik iradoki dauen arren. Herri horretako 176 familiak euren etxeak itzi behar izan ditue, mendi hegalaren zati bat goitik behera jausi ostean. Udaleko zerbitzuakaz eta Eusko Jaurlaritzagaz koordinata egindako beharrari esker, kostaldeko herrian "inor" ez dala "gizarte arloko babes barik geratu" ziurtatu dau.

Kamiñalden mendi hegalaren zati bat goitik behera jausi ostean Aldundiak gauzatu dauen beharra defendidu dau Laespadak. Bertan Aldundiko hiru sailetako – "Administrazio Publikoa, Nekazaritza eta Gizarte Ekintza"– hainbat zerbitzuek hartu eben parte. Egindako beharren artean, "kaleratze, laguntza tekniko eta garbiketa beharrak, bizitzeko zentroak eta elikagaiak kaltetuen esku jartea eta laguntza psikologikoa" aitatu ditu diputatuak.

Euskadiko Gizarte Zerbitzuen ganeko 12/2008 Legearen barruan gizarte arloko larrialdien aurreko koordinazio organua ezarteari jagokonez, Laespadak baieztu dauenez, hori sortzeko "beharrak egiten ari dira", beste administrazio batzuek "alkarlanean". Aldundiak interesa dau organu barri hori "gaur egungo larrialdietako foru zerbitzuetan oinarrituta egon daian". Zerbitzu horreen artean genero indarkeriagaz erlazioautako larrialdi egoerei erantzuteko funtzionetan dauena aitatu dau. Ganera, daborduko "existiduten" diran esperientzietan oinarrituko da. Esperientzia horreen artean Bilboko Gizarte arloko Larrialdien Udal Zerbitzuarena (SMUS) edo 2005ean Gipuzkoako Foru Aldundiak sortu ebana dagoz.

Oposizionoko taldeek, gizarte arloko larrialdien organu hori "ahalik eta arinen" sortu daiala eskatu deutse Aldundiari, legeak adierazoten dauen epe osoa bete arte itxaron behar izan barik –legea indarrean sartu eta zortzi urteko epea–, hau da, aurtongo abenduaren 25era arte itxaron barik. EH Bilduk salatu dauenez, oraindino etxebizitzarik bako "40 familia baino gehiago" dagoz Ondarroan. Laespadak, Alokabidek dituan gaiztasunak aitatu ditu hori azaltzeko. "Ez da erraza inguru horretan 176 etxebizitza aurkitzea", adierazo dau. PP taldearen galdera bati erantzunez, Laespadak esan dau inguru horretako foru etxebizitza "guztiak", familiei bizilekuak aurkitzeko beharrean ari dan Eusko Jaurlaritzaren erakunde horren esku jarri dirala.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

BIZKAIKO GIZARTE ZERBITZUAK GUNEETAN BANANTZEA

Aurreko astean Isabel Sánchez Robles Gizarte Ekintzako foru diputatu andreak adierazo eban moduan, Gizarte Zerbitzuen Mapea egiteko prozesuaren barruan Erakunde arteko mahai “parekidea”, Eudelek Lurraldeko gizarte zerbitzuen guneen araberrako banaketearen ganeko behin betiko dokumentua aurkeztu eta Euskadiko udalerrien alkarte horrek bere zuzendaritza organuen aldaketa prozesua definidu eta gero sortuko da, gogoratu dau barriro Laespadak.

Oposizionoko taldeen aldetik organu hori martxan jartean izandako “atzerapena” dala eta jasotako kritiken ostean, lurraldeko gizarte zerbitzuen errealidade “oso” bermatzeko “itxarotea” beharrezkoa dala ,eta prozesu horretan udalek orain zehaztu behar daben guneen araberrako banaketea “funtsezkoa” dala adierazo dau Laespadak, gizarte zerbitzuak eskintzeko orduan “bakotxa nogaz alkartuko dan” jakiteko. “Ezin doguz zerbitzuak transferitu udalak horretarako prest egon arte”, esan dau.

EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek azpimarratu dabenez, epea ez da oraindino bukatu, abenduan amaituko da. Oso garrantzitsua da “adostasuna” lortzea, eta arlo horretan “prisak ez dira bape onak”, esan dau Alexia Castelo batzordekide sozialistak. Aldundiak “egin beharrekoea egin dau”, Eudeli haserrako guneen araberrako banaketearen ganeko proposamena bialduta, eta orain “ondo zehaztu” behar da, gehitu dau Maria Esther Furundarena jeltzaleak.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

09/05/2016

Laespada asegura que "ninguna" persona en Ondarroa ha estado en situación de "desprotección social"

El grupo juntero EH Bildu había solicitado la comparecencia en Juntas Generales de la diputada foral de Empleo, Inserción Social e Igualdad, Teresa Laespada, para que ofreciera explicaciones en torno a la implementación del órgano de coordinación ante urgencias sociales que, según el nuevo Decreto de Cartera, debe estar creado antes de que acabe el año. Pese a no disponer aún de este servicio, la responsable foral ha asegurado esta mañana, en comisión, que este hecho “no ha supuesto una carencia” ante la situación de emergencia generada en Ondarroa como ha insinuado la coalición abertzale, donde 176 familias se han visto obligadas a abandonar sus casas debido al deslizamiento de una ladera. En coordinación con los servicios municipales y el Gobierno vasco, ha asegurado que “ninguna” persona afectada “ha estado en situación de desprotección social” en la localidad costera.

Laespada ha defendido el trabajo desarrollado por la Diputación tras el corrimiento de tierras en Kamiñalde, en donde llegaron a participar diferentes servicios de hasta tres departamentos forales –“Administración Pública, Agricultura y Acción Social”-. Entre los cometidos, la diputada ha mencionado labores de “desalojo, apoyo técnico y desbroce, puesta a disposición de centros residenciales y manutención, y apoyo psicológico”.

Respecto a la creación del órgano de coordinación de urgencias sociales, dentro de la Ley 12/2008 de Servicios Sociales de Euskadi, Laespada ha confirmado que “se está trabajando” en su creación dentro de un marco “colaborativo” con otras administraciones. El interés foral está centrado en que este nuevo órgano “parta de los actuales servicios de urgencia forales”, como el que funciona para atender situaciones de emergencia en asuntos de violencia de género. Además, se basará en experiencias “existentes” como las del Servicio Municipal de Urgencias Sociales (SMUS) de Bilbao o el creado por la Diputación de Gipuzkoa en 2005.

Los grupos de la oposición han pedido a la Diputación que cree “lo antes posible” este órgano de urgencias sociales, sin esperar a la fecha que marca la ley -ocho años después de su aprobación- como es la del 25 de diciembre de este año. EH Bildu ha denunciado que existen aún “más de 40 familias” sin una vivienda asignada en Ondarroa, a lo que Laespada se ha referido a las dificultades que está encontrando Alokabide. “No es fácil localizar 176 viviendas en ese entorno”, ha manifestado. En respuesta a una pregunta del PP, Laespada ha asegurado que “todas” las viviendas forales de la zona se han puesto a disposición de esta entidad del Gobierno vasco que se está ocupando del realojo de las familias.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

ZONIFICACIÓN DE LOS SERVICIOS SOCIALES DE BIZKAIA

Como ya indicara la semana pasada la responsable de Acción Social, Isabel Sánchez Robles, la creación de la Mesa “paritaria” interinstitucional dentro del proceso de elaboración del Mapa de Servicios Sociales, se creará después de que Eudel presente un documento definitivo de zonificación de los servicios sociales en el Territorio y de que la asociación de municipios vascos defina el proceso de cambio de sus órganos rectores, según ha vuelto a recordar hoy Laespada.

Criticada por los grupos de la oposición por la “tardanza” en su puesta en marcha, Laespada ha indicado que es necesario “esperar” para garantizar una realidad “completa” de los servicios sociales del territorio y, en este proceso, la zonificación que deben concretar ahora los ayuntamientos es “fundamental” para saber con quién se va a “coaligar cada uno” para prestar los servicios sociales. “No podemos transferir servicios hasta que los ayuntamiento estén preparados”, ha dicho.

PNV y PSE-EE han destacado que el plazo aún no ha terminado, puesto que termina en diciembre. La puesta en común tiene que venir de un “acuerdo” y, en esta materia, “las prisas no son buenas consejeras”, ha sostenido la juntera socialista Alexia Castelo. La Diputación “ha hecho los deberes” mandando una propuesta inicial de zonificación a Eudel y, ahora, hay que “concretarla bien”, ha añadido la jeltzale María Esther Furundarena.